


Euskal AEko industri jarduera %5,6 gehitu zen 2015eko ekainean

Industri Produkzioaren Indizeak %3,1eko gehikuntza izan du 2015eko lehen sei hilekoan

Eustaten datuen arabera, 2015eko ekainean %5,6 gehitu zen Euskal AEko industri produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeenetan, 2014ko hil beraren aldean.

Urteko lehen sei hilabeteetan industri jarduera %3,1 gehitu da, aurreko urteko aldi beraren aldean.

Urtaroen eragina zuzenduta, %0,3 murriztu zen Euskal AEko industri produkzioa, 2015eko maiatzaren aldean.



2015eko ekaineko indizearen bilakaerak, 2014koaren aldean, aldakuntza positiboak izan ditu industriaren lau sektore handietan. *Kontsumo-ondasunak* %5,4 gehitu dira

guztira; *Kontsumo-ondasun iraunkorrak* %+30,8, *ez-iraunkorrak* %-2,8. *Ekipo-ondasunak* %11,1 gehitu, *Energia* %1,9, *Bitarteko ondasunak* %4,2.

Hil artekoa, 2015eko ekaina maiatzaren aldean, positiboa izan da *Ekipo-ondasunetarako* (%0,6) eta *Bitarteko ondasunetarako* (%0,2). *Kontsumo-ondasunak* %3,1 jaitsi dira guztira; *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek* (%-5,0) izandako jaitsieragatik; *Kontsumo-ondasun iraunkorrak* %2,0 gehitu ziren. *Energia* %0,7 jaitsi da.

Euskal industriako pisurik handieneko sektoreen arteko hazkundeak 2015eko ekainean, urte artean: *Garraio materialean* %11,8; *Makineria eta ekipoan* %8,7; *Zurgintza, paper eta arte grafikoetan* %6,6.

1. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko aldakuntza-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	4,4
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-2,1
09 - Kautxua eta plastikoak	0,0
13 - Makineria eta tresneria	8,7
14 - Garraio-materiala	11,8
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	0,6
12 - Material eta tresneria elektrikoa	4,6
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	6,6

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Urte arteko jaitsierak: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna*, %-2,1; *Kautxu eta plastikoak*, %0,0.

Industri Produkzioaren Indizearen ekaineko urte arteko bilakaera positiboa izan da hiru lurraldeetan. Araban %2,8; Gipuzkoan %3,7; Bizkaian %9,0. Hil artean, 2015eko maiatzaren aldean: Araban %-2,2, Bizkaian %-0,6, Gipuzkoan %+1,1.

2. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Aldakuntza-tasak. Behin-behineko datuak. 2015eko ekaina

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	Eka2015/Eka2014	M(Eka2015)/M(Eka2014)*	Eka2015/Mai2015	Mai2015/Api2015
Indize orokorra				
Euskal AE	5,6	3,1	-0,3	0,3
Araba/Álava	2,8	-1,8	-2,2	1,6
Bizkaia	9,0	6,6	-0,6	2,4
Gipuzkoa	3,7	2,4	1,1	-2,4
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	5,4	7,0	-3,1	2,2
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	30,8	21,7	2,0	0,3
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-2,8	2,1	-5,0	2,9
Ekipo-ondasunak	11,1	6,0	0,6	-0,8
Bitarteko ondasunak	4,2	0,3	0,2	1,7
Energia	1,9	1,9	-0,7	-2,6

(*) 2015eko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2014ko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizeari (IPI) buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizeari (IPI) buruzko datu-bankua